



Xabier
Olaskoaga
Lasa

1918-2006

BIDeGILEAK

Egilea:

Mikel Ugalde



XABIER OLASKOAGA LASA

(1918-2006)

Oinezko bidegilea

ATARIKOA

Bidegileen bilduma honetan inoiz gizon edo emakume ezezagunen bat egokitzen zaigunean, honako hau da gure baitan sortzen zaigun galdera: nor dugu hemen aipatzen zaigun bidegilea? Hasiera-hasieratik aitortu beharra dago Xabier Olaskoaga errenteriarra benetan bidegile aparta dela. Ondorengo lerroetan ikusiko dugunez, ez zen goi mailako karreraren jabe izan, ez zen euskararen munduan izar berezi gisa nabarmendu, ez zuen liburu bildumarik argitaratu... Hala ere bazen norbait.

Norbait izango zen, bai, izan ere, Xabierrek bizi zen artean jaso zituen omenaldi eta aitortpenak ez ziren nolana hikoak izan. Gehientsuenetan, hil eta gero eskaini izan zaio goraipamena hainbati. Gure kasua, ordea, bestelakoa da. Plaza bat haren izenean jartzeko erabakia hil aurretik, zortzi urtez lehenago hartua zuen Errenterriako Udalak.

Arestian esan dugunez, gure bidegilea ez zen jakinduriaz nabarmenduko zen horietakoa. Autodidakta zen neurri handi batean, ahaleginaren ahaleginez bideak zabaldu zituen horietakoa.

Xabierrek gauza asko erakutsi zigun. Horietako bat aipatzekotan honako hau esango genuke: euskalgintza nornahik eta nonahi, bakoitzak bere esparruan, mami dezakeen eginkizuna dela, guztiok bidegile izan gaitezkeela, alegia.

Xabier Olaskoagak zabaldutako bideetik ekingo diogu ibilbideari. Bera dugu aitzindari eta bide lagun. Aitortu beharrean gaude lanak asko erraztu dizkigula Xabierrek. Izan ere, «ondorengoek bere berri jakin zezaten», lau CDtan grabatuak utzi zizkigun haren «xehetasunak». Ondoko bertso honen bidez azaldu zigun bere asmoa 1999ko irailaren 6an grabatzeari ekin zionean:

Laurogeita bat urte nik ditut
paseak mundu honetan,
urte hoitako pasadizoak
gertuen beude oroimenean.
Eta berauek kazetan bidez
grabaturik gelditzean
asmo beterik jartzen naiz orain
hau betetzeko bidean,
baina Jainkoak lagun nazala
hastera noan lanean.



Ama eta anai-arrebak. Eserita daudenak, ezkerretik eskuinera: Miren, Brigida ama eta Xabier. Zutik, ezkerrean Sabin, erdian Pilar eta eskuinean Maddi

Hauxe da, hain zuzen, koaderno xume honen bidez eskaini nahi diogun omenaldia eta esker ona.

XABIERREN GARAIA

Xabier Olaskoaga Lasa Errenterian 1918ko irailaren 6an jaio zenean, lehen gerrate mundiala zela medio, lurrikararen astin-



Ezkontza eta familia: Oñatin, San Migel elizan ezkondu eta gero, familiarekin ateratako argazkia. Erdian ageri den apaiza langileen batailoitan ibilitako Jose Leon Jauregi, Xabierren lagun handia

duak jaso zituen mundu osoak. Batzuk gerran bete-betean murgildu zirelako eta, besteak, kanpoan gelditutako zenbait estatuk irabaziak ugaltzeko aukeraz baliatu nahi izan zutelako.

Urte zailak izan ziren Olaskoaga familia-arentzat. Aita, Joakin Olaskoaga, hiru urteko haurra zela hil zitzaion Xabierri. Brigida Lasak, amak, urte latzak izan zi-

tuen bost seme-alabak aurrera aterako baziren. Esan beharra dago, Xabierrekin batera, Pilar, Maddi, Sabin eta Mirenek osatzen zutela anai-arreben zerrenda. Amak lana gogor egin behar izan zuen herriko garbilekuan arropak garbitzen, etxean koltxoiak egiten, eta antzeko lanetan, familiaren zama ez baitzen broma. Arrazoiz aitortu ohi zuen gure errenteriarrek, oso familia apal, umilekoa zela.



Garbitzaileak Errenterian. Argazkian agertzen diren emakumeen antzera, Brigidak, Xabierren amak, lana gogotik egin behar izan zuen familia aurrera ateratzeko

ESKOLAKO LEHEN URRATSAK

Nahiz eta, aitortu bezala, etxe apaleko semea izan, ama ahalegindu zen guztiei heziketa on bat ematen. Xabierrek Gurutzearen Alaben eskolan eman zituen lehen pausoak 1926ra arte, irakurtzen-eta bertan ikasi zuelarik.

Mojen eskolan jakineko adinetik gora neskak bakarrik hartzen zituztelako seguru aski, Xabier eskolaz aldatu zen eskola publikoan irakasten ziharduen Migel Irastortzaren esanetara jarritz. Maisu ona eta atsegina, Xabierren hitzak esker onekoak dira, benetan. Maisu hau, ordea,

errepublikanoa izanik, Francoren altxamenduaren ondorioz, fusilatu egin zuten preso hartu zutenean. Hurrengo irakaslea ere, Gabriel Santamaria, errepublikazalea zen.

Xabierri dagokionez, familiak heziera ona eman nahi izan ziola aitortu digu eta horren lekukoa da semea musika bideetan hezteko egindako ahalegina. Errenteriako Musika Bandaren zuzendaria zen Jose Maria Iraola, ospe handiko musikaria, eta Félix Lavilla irakasle aparta lagungarri izan zitzaizkion lehen urte haietan.

Garai hartako beste edozein mutikoren antzera, Xabier Olaskoagak egin ohi ziotuen bai bihurrikeriak. Horietako batean, esaterako, karbuero botilarekin jolasean ari zirela, lehertu egin zitzaion, kopetan jo eta baita zauritu ere. Ez zen, dirudienez, zauri larria izan, baina hala ere, bekokian arrastoa bizi osorako gelditu zitzaion.

Beste batean herriko aguazilaren baratzera egin zuten bisita bertatik artaburuak hartu, egosi eta lasai-lasai jateko asmotan. Oraingo honetan ere ez zen onik atera Xabier, udaltzaingoaren bulegoan



Errenteria xx. mendearen lehen hamarkadan: Errenteria, Euskal Herriko hainbat herriren antzera, gaurko jendetzaren laurdenera ez zen iristen xx. mendearen hasieran

ordu eta erdi pasa omen zuen eginikoari buruzko azalpenak ematen.

Erabakiaren arrazoiak ezagutzerik izan ez dugun arren, jakin badakigu familiak eskolaz aldatzea erabaki zuela. Zamalbidetako Tolare-berri eskolara eramaten dute. Han Don Pedro Indaberea apaiza izango zuen maisu. Irakasle zorrotza, zuzena, nahiz eta Xabierrek horrelakorik

sentitzen ez duen, hainbati beldurra sortarazten zion horietakoa. Esker oneko hitzak baditu honentzat ere gure lagunak.

Eskolara arteko joan-etorria ez zen berriketa neska-mutilentzat, hiru ordu laurden behar baitziren aldapan gora eskolara iristeko. Denera, baziren hamabiren bat lagun elkarrekin Zamalbidera joaten zirenak.

Eguerdiari eskolatik irten eta etxera jais-teko ez baitzigun denborarik ematen, Tolare-berri baserrian bazkaltzen genuen. Bertan eltzeko ederra ematen ziguten eta etxetik eramandakoa berotzen. Kafea eta pitarra ere ematen ziguten. Hori guztia 35 zentimoren truke¹.

GERRA ETA DIKTADURA

Kontu jakina da bizi garen lurraldeak, giroak, garaiak neurri handi batean baldintzatu egiten dutela bakoitzaren bizitza.

Xabier 1932. urtetik 1936. arte, Errenteriako Euzko Gaztedi Kirolzalea taldeko kide izan zen eta baita batzokiko antzez taldeko partaide ere. Inoiz, hala behar zenean, bertako txistulariekin atabala jotzen zuen Felipe Lizasoren esanetara.

Gerra piztu zenean, Mola jeneralaren soldaduak nahi baino lehenago iritsi ziren Errenteriara. Batzokian gudari taldeak antolatzeari ekin zioten. Sabin Olaskoagak, Xabierren anaiak, bere burua eskaini zuen eginbide berriotarako. Artean oso

¹ Xabier Olaskoagaren grabaziotik jasotako aipamenak, ortografiari dagokionez, euskara batuan ipini ditugu liburuxkaren idazkerarekin bat egin dezaten.

gaztea zenez, Xabier laguntzaileen talde-tan aritu zen hainbat leku, komentu edota arriskuan aurki zitezkeen pertsonak babesten.

Gerra aurrera zihoan eta Xabierrek irai-lean herritik irten behar izan zuen: Getariara, Loiolara, Gernikara, Bermeora, Otxandiora... erromesaldi luzean beti ere laguntzaile gisa. Etsaiak indartsuagoak zirenez, Bizkaitik Arabarantz jotzen du, Enkarterrietara gero, Kantabriara ondoren... Azkenik, Limpias izeneko herri batean hartzen dute preso militar italiarrek.

Gurutze bide latza pasako du hortik aurrera. Laredoko hondartzara lehenik eta,



Xabierrek harreman onak izan zituen bere preso kideekin. Astorgan 1940ko urtarrilaren 1ean



Ourense, badirudi langileen batailoitan jasandakoak eramangarriagoak izan zirela beste lurraldeetakoak baino. Bertako koruko kide izateak zerikusi zuzena izan zuen. 1939ko argazkia

handik aurrera, langile behartuen batailoitan harantz eta honantz gelditu gabe, Sabin anaia gogoan: Miranda de Ebro, Leon, Ourense, Leon berriro, Astorga... Valladoliden iturgin laguntzaile gisa.. beti lanean: errepideak zabaltzen, kuartelak egiten, eskolak eta etxe merke deiturikoak eraikitzen, ura ekartzen... Honela gogoratzen ditu Xabierrek egun haiek:

Baziren bai lan horiek egiteko abildade handia zutenak. Nik, berriz, ez nuen horrelako lanetan ohitura handirik. Eskuetan babak berehala atera zitzaizki-

dan. Egun gogorrak izan ziren haiek niretzat.

Hala ere, oso gogoz gogoratzen ditu Ourense bizitakoak. Gailegoek eskaintzen zioten harrera sarritan eskertzen du. Nahiz eta langileen batailoitan jardun, bazuen nonbait bertako abestaldean kantaizeko hainbat askatasun. Harreman onak izan zituen bertako hiritarrekin.

Gerra amaitu zenean, hilabete batzuk militarren mendean egin behar izan zituen eta, azkenik, maiatzaren 21ean, Corpus Christi egunean, aske utzi zuten.



Algecirasen soldadutzan 1942ko
otsailaren 12an

Kantua bizitzaren aringarri

SOLDADUTZA

Udaberrian etxeratu zen baina ez denboraldi luzerako. Hilabete batzuk igaro zituen lasai antzean han-hemenka lan-txo batzuk eginaz, herriko festak gozatuz, koadrilan nahiz koruetan sarritan abestuz. Geroxeago ikusiko dugunez, Xey taldearen sorreran ere bertan zen Xabier. Libre eta gustura bai, baina esan bezala, ez luzarorako. Gerran eta ondorengo zigor-lanetan jasandakoak nahikoak ez nonbait eta, irailean 1938-39 kintako kide bezala, soldadu abiatu behar izan zuen RENFE trenean. Lehen geldialdia Miranda de Ebron egin zuen. Ondoren hiru eguneko bidaia

aspergarria egin eta gero, Algeciras aldera iritsi ziren. Hasieran paraje lehorra eta gogorra iruditu zitzaion errenteriarrari.

Hemen ere kantaria izateak asko lagundu zion. Jakin zuten nonbait Xey taldekoa zela eta, horren ondorioz, abestalde bat osatzeko deia jaso zuen. Berehala osatu zuten Langilleak izeneko korua. Lehen ekitaldia Jesusen Santa Teresa egunekoa izan zen. Meza nagusian abestu eta gero, ezpata dantzaren ikuskizuna eskaini zuten. Anekdota moduan zera dio Xabierrek, dantza egiteko ezpatarik ez zutenek, militarren egiazko ezpatak erabiliz egin zutela dantza saioa.

Kantuak ate asko zabaldu zizkion eta Algeciras hirian oso ezagunak egin ziren. Batetik eta bestetik kantatzeko deiak izaten zituzten. Bertako irratian, esaterako, Xabierrek, esatari moduan, euskarazko kanten azalpenak ematen zituen bitartean, kantaldi bikaina osatu zuten.

Lurralde haietan nahikoa ongi bizi bazen ere, sorterrira hurbiltzeko gogoia nonbait, Logroñora aldatu zen klasifikazio berri baten ondorioz. Horrela askatasun gehiagoren jabe sentitzen zen eta etxerako bisitaldiak ugaltu zituen.

Soldadutza nahi baino luzeagoa gertatu bazitzaion ere, 1943ko abuztuaren 23an baldintzapeko lizentzia eman zioten. Berriro, azkenik, etxean zen.

LANBIDEAK


Zamalbidetako eskola utzi zuenean Domingo Etxebesteren tailerrean hasi zen lanean Xabier. Tailer horretan Olibet lantegirako gailera kaxak egiten zituzten. Soldadutzatik 1943an itzuli zenean, lan bila hasi behar izan zuen berriro. Lehenengo lantegian Xabierrentzat ez zen leku-



Xey taldearen sortzaileetako bat izan zen Xabier, baina soldadutza zela eta, taldea utzi behar izan zuen. Sabin Olaskoagak, Xabierren anaiak, jarraitu zuen taldean

rik. Hilabeteak behar izan zituen gano-razko lana eskuratu ahal izateko.

Azkenik, nonbait lanean hasi behar-eta, Donostian ardo banatzen hasi zen Vinos Donosti lantegian. Errenteriarrek aitortzen duenez, ez zen batere lan gozoa. Ardoak banatzeko, batetik bestera



garraiatu beharra zegoen. Lanbideak behartuta, autoa gidatzeko karneta ere orduan atera zuen, Horrela eman zituen hilabete batzuk. Errenteriatik Donostiarako joan-etorriak tranbia zaharrean eginaz. Garai hartan irabazten zuen jor-nala: 14 pezeta. Horietatik bi pezeta joan-etorrietan joaten zitzaizkionak.

Donostian lanean ari zela, Errenterian zeukan bulegorako lan eskaintza egin zion Banco Guipuzcoano banketxeak. Kobratzaile lanerako nahi zuten eta han ere 14 pezetako jor-nala eskaintzen zioten. Xabierrek bertan gelditzea erabaki zuen. Lana eroso-agoa zela ikusten zuen eta joan-etorrietako gasturik ez zuen aurrerantzean izango.

BERRIRO KARTZELARA

Soldadutzatik 1943. urtean itzuli, lanean hasi eta bizimodu normala zeraman garaian, 1947an preso hartu zuten Ondarretako espetxean.

Zergatik eraman zuten, ordea, Xabier Olaskoaga preso? Itxura guztien arabera, Euzko Alderdi Jeltzalearentzat erresistentzia lanean jardun izan zuelako.

Donostian, Vinos Donosti lantegian ardo banatzen aritu zenean, egunero joan-etorriak egiten zituen errenteriarak. Hasieran, mesede moduan, pakete batzuk Errenteriatik Donostiara, eta alderantziz, eramatea eskatu zioten eta Xabierrek baietz, eramango zituela. Gero jakin zuen garraio lan hori EAJko erresistentziarentzat eginikoa zela. Arriskuaz jabetu zen eta lan horri eutsi egin zion.

Lanbidez aldatuz Errenteriako Banco Guipuzcoano bulegoan hasi zenean, Donostiara joateari utzi zion eta hor bukatu zen erresistentziarentzat egin beharrekoa.

1947. urtea zalapartatsua izan zen Euskal Herrian. Diktaduraren aurkako mugimendua areagotu zen. Lantegietan-eta, mobilizazioak eta huelgak egin ziren eta horren ondorioz, errepresioa ere areagotu egin zen.

Xabierren lagun batzuk atxilotu zituzten eta komisaldegian eginiko galdeketetan Olaskoagaren izena agertu zen. Maiatzaren 3an, goizeko lauretan, Meliton Manzanas eta herriko udaltzainburua etxera joan zitzaizkion eta Iruna eraman. Egun

pare bat inkomunikatua eduki ondoren, Ondarretako espetxera denboraldi batorako sartu zuten.

Bakardade izugarria jasan zuela aitortzen digu. Hasieran erabat inkomunikatuak, gero berrogeitaka laguneko zigorgeletan, arnasa hartzeko ere lanak izaten zituela dio.

Esan beharra dago Ondarretan preso egon zen bitartean, lan egiten zuen enpresak jorrala pasa egiten ziola, eta hari eskerak, etxeko ekonomia gehiegi kaltetu gabe moldatzeko modua egin zuela.

Oraingoan ere kantuari etekina atera zion Olaskoagak. Kartzelan igandero meza izaten zen. Presoek zigorgelatik entzuten zuten meza. Kantuak eta musika zuzentzen zituen arduraduna, ohartu zen presoan artean bazirela abeslari onak eta handik aurrera kartzelako koruan parte hartu zuen Xabierrek. Hori horrela, zigorgelatik maizago irteten zen entsaiotara eta meza garaian ere gelatik kanporatzen zen koruan abesteko.

Kapilauaren lana ere baliagarri izan zitzaien presoek. Apaizaren bidez jasotzen

zituzten etxekoen berriak. Aitortza sakramentuaren garaian, kapilaua banan-banan presoekin egoten zen uneaz baliatzen zen berriak jasotzeko. Maritxu andregaiaren bisita ere izan zuen Xabierrek sufrimenduen aringarri.

Ondarretako espetxean 1947ko azaroaren 5a arte inkomunikaturik igaro ondoren, abenduaren 2an salaketa indargabetzen du epaiak «causa sobreseida» delakotzat erabakiz. Egun horretan bertan hartu zuen Xabierrek etxerako bidea. Zain zeukan Pilar arreba etxean. Hurrengo egunean Oiartzunen Maria andregai besarkatu ahal izan zuen. Libre zen!

Kartzelaldiaren ondorioak jarraitzen zuen. Xabier ahul sentitzen baitzen, Sanperio osagileak 25 injekzio eman zizkion. Handik aurrera bere onera etorri zen errenteriarra.

Kartzelatik irten eta gero, herrira itzuli zenean, lanbidearen etorkizunak kezkatzen zuen Xabier. Lanik gabe utziko zuten beldur zen. Banketxeak, ordea, preso egon zen denboran jorrala osorik ordaindu zion eta, itzuli zenean, bertan lanean jarraitu ahal izan zuen.

KALETIK BULEGORA

Orain ohiturak aldatu badira ere, kobratzaileak kalean egiten zuen gehienbat lan. Garai hartan plazoka-eta asko saltzen zen eta horren ondorioz ordaindu beharreko erreziiboak bankuko kobratzaileak pasatzen zituen. Astelehen, asteazken eta ostiraletan txartela aurkezten zien, eta kobratu berriz, gainontzeko egunetan.

Olaskoagak berak kontatzen digunez, ordutegi nahiko malgua izan ohi zuen. Xabier garai hartan elizako koruko partaide zen eta, kobratzaile lanak hiletetan inongo oztoporik gabe kantatzeko aukera ematen zion. Norbait hil zela eta abestu beharra egokitzen zitzaionean, goizago, zortzietan, joan ohi zen lanera. Hileta orduan elizara, eta gero berriro itzultzen zen lanera. Hiletan kantatzeagatik, 8, 10 edota 15 pezeta jasotzen zituen beti ere elizkizunaren kategoriaren arabera.

Handik urtetara, enpresak Oiartzunen zabaldu zuen bulegora joan zen Xabier. Oraingo honetan, ordea, lana bulegoan egiten zuen eta baldintzak ere hobeak ziren. Bertan jarraitu zuen erretiroa hartu zuen arte.



Maritxu Urtaza eta Xabier Olaskoaga ezkondu ondoren zoriontsu Oñatin (1951-4-9)

EZKONTZA

Xabierrek, Donostian ardo banatzen lan egiten zuen hartan, bi joan-etorri egiten zituen garai hartako tranbia zurian. Horrelakoetan gertatu ohi denez, lagunak ere egiten dira. Joan-etorri haietako batean, Oiartzunen bizi zen Maritxu Urtaza ezagutu eta hartaz maitemindu zen. Harremanetan jarraitu zuten eta 1951ko apirilaren 9an ezkondu ziren Oñatiko San Migel elizan. Apaiza Jose Leon Jau-



Xabier eta Maritxu emaztea,
Jabier semearekin

regi, Xabierren lagun handia, hura ere langile batailoitan ibilia.

Bazkariaren inguruko xehetasun jakingarriak ere eskaintzen dizkigu errenteriarak. Denera, 21 lagun bildu ziren Etxeberria jatetxean. Bazkariaren kostua 1.050 pezetan bazen ere, Terry eta Cadenas likore botilak 110 pezeta balio zutenez, erretako 6 puruk 24 pezeta, eta beste gastu batzuk tarteko, denera 1.204 pezetakoa izan zen. Bazen bai ondorenean bertso eta kanta hotsa. Musika, ordea, ez zuten jarri.

Eztei ondorengo bidaian Gasteizko Hotel Españan hartu zuten ostatu. Ondoren Andosilla, Bilbo, Arantzazu, Oñati eta azkenean Errenteriara.

Idazlan honetan Xabier goraiatzaren bada ere, uka ezina da Maritxu emazteak ze-

rikusi zuzena izan zuela Xabierren bizi-tza emankorrean. Elkar maitatuz eta familiaren aldeko lanean saiatuz bizi izan ziren hainbat urtetan.

Familian seme bakarra izan zuten, Jabier. Une larri eta ebakuntza gogorra jasan ondoren jaioa. Bigarrenez, Maritxu haurdun geratu bazen ere ez zuten geroztik familiarik izan.

ABESLARI NEKAEZINA

Ondoren ikusiko dugunez, musika munduak bete-betean blaitzen du Xabier Olaskoagaren bizitza. Hainbat musika doinu bere letraz jantzi zuen, 1962an hasi eta 1981 urte arte, herriko musika elkar-tearen gida batzordeko izan zen, hainbat musika jaialdiren aurkezle eta, batez ere, bizitzan zehar, etenik gabe, abestu izan zuen kantaria genuen.

Xabierrek berak grabaturik utzi digun testigantzan aitortzen digunez, bizi osoa eskaini izan dio kantuaeren eginbidea-



Xabier bizitzan zehar hainbeste lagundu izan zion Maritxu emaztearekin

ri. Era askotako alor eta taldetan abestu izan zuen: tiple eta tenor moduan, elizan, bikote eta zortzikotea osatuz, abestaldeen, kartzelan, zigor-lanetan han-hemen osatutako taldetan... Gehinetan euskarazko kantak abestu ohi zituzten, baina baita amerikar kutsukoak ere beste zenbaite-tan. Denetariakoak.

Umetatik hasita, parrokiako koruan bizi osoan abestu izan zuen. Batzokian Gazteak deituriko taldean, langileen batailoitan Miranda de Ebron, Ourense, Donostiako Easo abesbatzan, Xey taldean, Algecirasen, Errenteriako Orfeón Renteriano abesbatzan, Santa Zezilian, Lartaun taldean, herriko Pakezaleak taldeko kide zen... Kantatzeko zaletasuna odolean zeraman.



Maritxu eta Xabier ilobekin



Oñatin, Xabierrek 80 urte egin zitueneko ospakizunean, Iñaki Goñi abeslariarekin kantari. Eserita, Sabin iloba (1998)



Maritxu eta Xabier senar-emazteak, Jabier semea eta Mari erraina, Xabier eta Ander ilobekin

XEY TALDEAREN SORTZAILE

Gerra garaiko eta ondorengoetako kateetik askatu zenean, Xabier bere herrira itzuli zenean, bere lehen gozaldi beteenetakoa Madalen jaien ospakizuna izan zen. Ondoren lan bila hasi beharra zeukan etxera sos batzuk eramango bazituen. Gure lagunaren esanetan «txapuzak» ere egiten omen zituen etxekoei laguntzarren.

Bien bitartean, beste edozein gazteren antzeko bizimodua egiten zuen. Egunez han-hemenka egin zezakeenaz gain, lagunekin batera gustura kantatzen zuen tabernetan eta joan-etorrietan.



Oiartzungo Lartaun Abesbatzarekin 1970eko azaroaren 17an

Xabier ere aipatu Xey taldeko sortzaile izatera iritsi zen tenoreen bigarren taldeko abeslari gisa, Segundo Galarzaren zuzendaritzapean. Easo koruko kide batzuek Xey musika taldea osatzeko asmoa erakutsi zioten Xabierri bertan parte har zezan gonbitea luzatzearekin batera. Baiezkoa eman zien eta aurrerantzean ondoko bost lagunek osatuko zuten Xey taldea: Guillermo Lazkano musikagile eta pianista, Xabier Olaskoaga tenorea, Txomin Arrasate bigarren tenorea, Txiki Lahuerta baritonoa, Victor Gracia eta Pepe Yantzi soinu-jolea.

Lehen ekitaldi haietan Donostian eta hainbat herritako ospakizunetan, premia



Lartaungo txistularien bandan Xabier atabala jotzen (1970-11-15)



Herri bizitzan egin ohi ziren ekitaldietan aurkezle sarritan agertzen zen Xabier. Nahiz eta hasieran urduri omen zegoen, ongi moldatzen zen mikrofonoarekin. Oraingo hau Ezpeletan 1966ko uztailaren 31n

bereziren bateko diru-bilketetan, jaialdietan esku hartu zuten. Taldearen abestiak eta musika jendearen oso gogoko ziren. Umoreari erantzuten asmatu zuten, kalitateari eutsi zioten eta Xeyren arrakasta handituz eta zabalduz joan zen.

Columbia etxetik diskoak grabatzeko deia ere jaso zuten 1941eko maiatzean. Madrilerako joan beharra zegoen horretarako eta taldeko kideek arazoak zituzten tresnak eskuratzeko, jantzi egokiak inguratzeko... Frankismoaren babes-

pean ziharduen Educación y Descanso erakundetik jaso zuten horretarako behar zuten laguntza. Denera, abestiekin hiru disko grabatu zituzten eta esku-soinuz osatuak beste bi. Esan gabe doa grabazio honen haritik, taldearen ospea hedatuz joan zela.

Berariaz aipatzen digu Iruñean eskainitako emanaldia. Sorozabal musikagile handiak moldatutako *Maite* abestia estreinatu zuten, mundu osoan ezagunizatera iritsi zen abestia.

Nahiz eta taldea utzi beharrak min eman zion, Xabier Olaskoagak guztiak utzi eta berriro soldadutzara joan beharra zekukan. Gerratean hainbeste pasa eta sufritu eta gero, etxea, lagunak, Xey taldea eta gainontzekoak utzi eta berriro militarren morroi aurkitu zen. Algecirasko bidaia zain zeukan.

Xeyko lagunak, nolabait lagundu egin nahi eta, omenaldi xume bat antolatu zioten Victoria Eugeniean, Celia Gamez artista famatua bere emanaldiak eskaintzen ari zen garaian, hain zuzen. Jaialdia antolatu zuten eta bertaratuen artean Xabie-



Gabon Abesti Sariketan Pakezaleak taldearekin
1996an Erreterian

rrren aldeko diru bilketa egin zuten. Uste baino diru gehiago bildu zuten. Erreteriarren poza ez zen nolana hikoia izan! Bai etxekoei laguntza apurra emateko, bai soldadutzak ekarriko zizkion gastuei aurre egiteko laguntza aparta, benetan.



Erretiroa zela eta, lankideek Versalles jatetxean eginiko despedidan (1981-2-21)

Xey sortu eta handik urtetara jaso zuen Xabierrek taldean berriro sartzeko gonbita. Ordurako, ordea, ogibidea finkatua zuen eta nahiago izan zuen etxe giroan jarraitu. Erabaki zaila bai, baina, aitortzen digunez, egundo damutuko ez zitzaiona.



Erreterian urtetan bizi izan zen Rafael Bereziartu soinu-jolearekin abesten. Euskal antzerki saioen atsedean elkarrekin abesten zituzten euskal kantak eta bertsoak. Hemen, Gabon egunean, Aralar tabernan 1982an



Umore onik ez zitzaion Xabierri falta izan. Hemen inauterietan, batzokiko tabernan (1980-2-16)



Euskararen ekintzaile

Une eroso nahiz zailenetan, lagundu diotenentzako esker oneko hitzak baino ez ditu izan Xabierrek

AURKEZLE LANETAN

Bertsolarien Txapelketan, kantaldietan, kontzertu emanaldietan, dantzaldietan, era guztietako ospakizunetan garrantzi handikoa da aurkezlearen lana. Ongi aurkeztutako ospakizunak asko irabazten du eta on egiten dio ekitaldiari berari eta baita hizkuntzaren erabilerari ere. Oso ongi kontatzen digu berak:

Gai honetan makinatxo bat lekutan ibili izan naiz eta ez naiz behin ere damutu izan lan hau egin izanaz. Hasieran oso urduri ibiltzen nintzen. Baina, ondoren, gero eta errazago egin ditut aurkezpen lanak.

Jarraian, ekitaldiak aurkezten nondik nora hasi zen azalduko digu:

1958ko uztailaren 23an, Madalen jaietan, Basarri goi mailako bertsolari eta aurkezleak ezin izan zuen, urtero bezala, Errenteriara etorri dantza txapelketa aurkeztera. Eta dei egin zidaten bere lekua bete ahal izateko eskatuz. Lan gogorra benetan, izan ere bere mailara iristea oso zaila baitzen. Gogoratzen naiz dena oso ondo idatzi eta prestatua eraman nuela. Baina urduriz beteta, nola edo hala, atera nuen aurrera ekintza hura. Geroago errazago egin izan nuen beste hainbat ekintzetan. Hauxe izan zen nire lehenengo su-haustea lanbide honetan.

1962.etik 1977. urtera arte, aurkezle eta gai jartzaile gisa aritu zen herriko Madalen jaietan. Lan hura ez zen nolana hikoia. Francoren diktadurak agintzen zuen eta herrietako ekitaldi eta ospakizunak oso gertutik kontrolatzen. Xabierrek bazuen horren berri. Inoiz bertsolariek bota behar zituzten bertsoen itzulpena eskatzen zitzaaien antolatzaileei.

Basarri bertsolari eta aurkezleak dantza txapelketa aurkezteari utzi zionean, Xabierrek jarraitu zuen, baina berak aitortu bezala, hasierako urduritasun hura gabe.

Herritik kanpora askotan jardun izan zuen aurkezle zereginetan. 1964an, esaterako, Goizaldi dantza taldeak aurkezle lanak egiteko eta bertako kantariak zuzentzeko eskaera egin zion. Horrela, hainbat herrialde ezagutzeko aukera izan zuen. 1968ko uztailaren 7an gertaturikoa gogoratzen digu Xabierrek:

Nire 50 urteak egin nitueneko eguna zen, etxeko senide eta lagunetatik urrun. Pragako irrati bateko deia izan nuen bertan hitz egin beharra neukala azalduz. Elkarrizketa euskaraz eginga behar zuen. Gainera kontu handiarekin egin behar

zen. Francoren denborak ziren eta zer-bait aurkako esaten bazen aukera zenuen kaltetua izateko. Uste nuen inork ez zuela entzungo nire saioa Euskal Herrian eta Espainian, baina bertatik irten ondoren eta Oiartzunen lanean ari nintzela, oiartzuar batek esan zidan nola entzun zuen Pragako elkarrizketa. Eskerrak ezer garrantzizkorik esan ez nuen!

Pragako irratiak euskaraz. Ez da marka makala. Beste pasadizo xelege baten berri ere ematen digu Xabier Olaskoagak. Ondoko hau Goizaldi taldearekin zebilela, Holandan gertatua:

Holandako herri batean pasadizo gogoangarria gertatu zitzaidan. Nik euskaraz egiten nituen aurkezpenak baina herri honetan holandarrez egiteko esan zidaten. Nik euskaraz bai baina holandarrez, kale. Nik nire asmorik onenarekin, esan nahi nuena itzultzeko esan nien antolatzaileei. Itzulpena egin zidaten eta baita nola hitz egiten eta ahoskatzen zen adierazi. Nik gutxi gora behera nola esan behar zen esan nien. Ni aurkezpena egiten hasi nintzen eta oholtza aurrean zeuden gizon-emakumeak, tartean beltz bat zela oroitzen naiz, nire aurkezpenari barre egiten zioten. Nik nola esango ote nuen holan-



Goizaldirekin Zagreben. Xabierrek abesten eta hainbat zereginetan laguntzen zion taldeari (1974-7-21)

darrez! Saioa amaitu zenean, beraietara hurbildu nintzen eta eskatu nien beren iritzia nire aurkezpenari buruz. Barre egiten zutela nik izan nuen ausardiagatik hollandar antzera egitearekin, baina guztia

ulertu zutela zioten. Horrela ikasi nuen ausardiak ere balio izaten duela askotan.

Oinkari dantza taldearekin ere ibili izan zen aurkezle eta kantari moduan.

SORTZAILEA

Xabier Olaskoagak era askotako lanak idatzi zituen. Errenteriako *Oarso* aldizkarian; urtero-urtero argitaratuko zuen bere lantxoa. Hauetariko asko lagunak gogoratuz idatziko ditu. Irakurlea konturatuko denez, Xabierrek ez zituen, ortografiari dagokionez, idazlanak euskara batuan idazten. «Añarbe (G.B.)», «Errenteria'tar Erramun Aba», «Boni eta Bittor», «Pedrotxo eta Julio», «Errapel Bereziartua gogoratuaz», «On Jesus Kerejetari»... Beste batzuetan herriko talde eta gertakizunak izango ditu aipagai: «Ereintzako txistulariak urteetan zear», «Ogeigarren mendean. Errenteriako dantza talde eta dantza maixuak», «Eguarri kanta sariketa»... Historia ere gogoko zuen: «Antzerkia Errenterian», «Errenderiko bertsolari eta olerkari zaarrak»... Errenteriarren lanei buruzko aipamena honela jasotzen du *Oarso* Erredazio taldeak:



Politikari dagokionez, hasieran EAJkoa izan bazen ere, zatiketaren ondoren EAra aldatu zen. Xabier herriko hautagai zerrendan 1995ean, maiatzean

Errenterian argitaratu izan diren aldizkarietan ohikoa izan da Xabierren lankidetzatza. *Oarson* bertan ere, hutsik egin gabe argitaratu izan ditu urtero-urtero artikulua, bertsoak, pasadizoak, aipamenak eta baita ikerketa lanak ere. Oraingo honetan ere ez du kale egin nahi izan. Bihotzean darma aldizkaria eta, esan gabe doa, oso maitea duela hau prestatzen aritu den taldeak. Berak idatzitako hainbat kantaren letrak bidali dizkigu, lore sorta gisa, haren lorategian dagoen edertasunaren lekuko. Behin eta berriro, eskerrik asko Xabier. Ongi izan eta gora bihotzak. (2006ko alean).

Hona hemen aipatu ale horretan argitaratutako lan bat.

BANDURRA

(Errusia aldeko musika lan bati ipinitako itzak).

Ator billobatxo aitonarekin batera.
Egunaren sorrera goizean ikustera.
Ikusiko dek mendian illuna argitzen
zeru urdin zabala margo politez apaintzen
Eguzki ederra garbi garbirik agertzen.

Entzun txoritxoak
abesten dituzten eresi gozo alaiak
Jauna agurtzera
bizkor datoz enarak.

Otoi egik billoba
nerekin batean
agurtu deigun biotzez
emen lurrean.
Zeruetan dagoen jaun maitea
bera bakar da
zeru lurren egillea.

Bera gabe ez da egun sentirik
ez eta ere txoritxoek abestirik
Bera gabe ez da egun sentirik
ez da txorien abesti goxoenik

Ator billobatxo aitonarekin batera
Egunaren sorrera goizean ikustera.

Xabier (1945-3-15)



1989ko otsailaren 4an, Ereintzako Santa Agedako koruak omenaldi gisa bertsoak kantatu zizkien Maritxu eta Xabierri Erreterian



Xabier Olaskoaga Plaza 2005eko irailaren 14an inauguratu zuteneko unea. Plakan ageri da plazaren deitura

OMENALDIK EREINTZA ELKARTEAREN ESKUTIK

Erreteriarren herri bizitzan eragin handikoa izan da Ereintza Elkartea, 1958. urtean sortu zenez geroztik. Kirola eta euskal kultura landu ditu etenik gabe azken mende erdi honetan. Eta Xabier, nola ez? Oso maitea izan dute ereintzarrek.



Santa Ageda bezperan Ereintzaren aldetik jasotako omenaldiak jarraipena izan zuen biharamunean bertso jaialdian. Oier Kazabon mutikoaren eskutik oroigarria jasotzen (1998-2-5)

Urteroko ohiturari jarraiki, ereintzarrak kalez kale irten ziren 1989ko Santa Ageda bezperan. Gau hartan, Xabier Olaskoagaren etxepean, Sabin Irastorzak eta Juan Eizagirrek prestatutako bertso bikainak kantatu zituzten. Hona hemen, pare bat bertso:

Gabon Jainkoak Xabier eta
berdin ere etxeoak
Santa Ageda bezpera ontan
giñaden etortzekoak.
Eskertutzeko denen aurrean
Herrian egindakoak
Hala ta guztiz izango gera
zorretan gelditzekoak

Amets hau dugu lagun Xabier
Gure bihotzan barrenez
Herriko seme leial bizkorra
Indartsu euskal almenez.
Hemendik lasai joango gera
agur ona eramanez
gure maitasun beroarekin
Bihar zerorren omenez.

Abenduan Xenpelar saria jokatzetik izan ez zenez, Ereintzak sariketetan zehar irabazle izan ziren bertsolariak bildu eta bertso jaialdia egitea erabaki zuen. Bide batez, Xabier Olaskoaga omentzea erabaki zuen.



Lau Haizetara euskaldunon elkarteak gonbidaturik, Erreterian Xabierrek eraman zuen testigua Korrikan (2001-4-6)

Omenaldian, Reina aretoan, otsailaren 5ean, eguerdiko 12etan bertso saioa ondoko bertsolariek hartu zuten parte: Narbaiza, Murua, Peñagarikano, Euskitze, Sarasua, Sorozabal eta Narbarte Xenpe-lar sariaren irabazle izandakoak guztiak. Zortzikotea osatuz, berriz, Kosme Lizaso Santa Agedatako koplaria. Jarraian, omenaldia egin zitzaion Xabier Olaskoagari.

Joxemari Aranaldek, ospakizun hau dela eta, ongi biltzen du Xabier Olaskoagaren izaera eta nortasuna:

Xabier Olaskoaga
agur eta ohore.
Herrian eta elizan
kantugile-kantore,
landu duzu hizkuntza ta
landu duzu folklore.
Milesker, eta jarrai zuk
gurekin gero ere.



Xabierrek lagunartea zaindu zuen. Harremanetan atsegina eta zabala zen. Argazki honetan Jorge Oteiza eskultorearekin eta Migel Pelay Orozco idazlearekin ageri da

HERRITARREN OMENALDIA

Atarikoan esan bezala, zoritxarrez, ez da ohikoa, horrelako omenaldiak omendua sasoiko den arte egitea. Askotan, hil eta gero egin ohi dira aipuak eta omenaldiak. Xabier Olaskoagaren kasuan guztiz bestelakoa gertatu da.



Maritxu eta Xabier senar-emazteak inaugurazioaren ekitaldian (2005-9-14)



Esker ona erakutsi nahi izan zion Mikel Pontesta aurrekulariak Xabier Olaskoagari

Heriotzaren oroigarria, Xabierrek hain maitea zuen
Jautarkol olerkari erreteriarren hitzez osatua

Erreteriarako Udalak, 1998ko udal batza-
rrean, besteak beste, Xabier Olaskoaga-
ri Niessen lantegiko lurretan plaza bat
eskaintzea erabaki zuen. Hil baino zor-
tzi urte lehenago gozatu ahal izan zuen
Xabierrek udalaren erabakitakoaz. Esan
gabe doa, poz betea 2005ean plaza inau-
guratu zenean izan zuela.

Ereintza elkarteak eskainitako omenal-
dia ez zen azkenekoa izango. Erreteriarako
Udalak, 2005ean, Niessen merkataritza gu-
nean eraikitako Xabier Olaskoagaren pla-
za zabaldu zuten herriko semearen omenez
eta udalaren eta herritarren esker onez.

Begira, adibide gisa, Julian Albisturrek,
2006eko *Oarso* aldizkarian, omenaldi hau
dela eta, nolako azalpenak ematen dituen:

Nere iritziz gauza ugari
gaizki daude beharbada,
halere gure agintariek
zerbait ona dute laga.
Izendatzea plaza,
ez dakit zen erraza;
euskal kutsua du hara:
herri kulturen murgildu baita
Xabier Olaskoaga.



HILETA JENDETSUA

Hain maiteak zituen Madalen jaietan,
2006ko uztailaren 23an, hil zen Xabier
Olaskoaga. Hiletetan bildu zen jende-
tzak ederki asko erakutsi zion hurbiltasun
eta esker ona. Handik gutxira, Ereintza-
tzak, Erreteriar Musikalak eta herriko
musika bandak jaialdi berezi bat eskaini
zion herriko polikiroldegian.

Euskalgintzaren ikuspegitik, Xabier Olas-
koagak ez du hainbat bidegileren antzik.
Eskola arrunteko gizona, ez zuen apaiz-
gaitegirik edota unibertsitaterik ezagu-
tu. Ikasitako guztia bizitzaren akademian
gogor saiatuz eskuratu zuen. Gerran eta
ondorengo urtetan asko sufritua, langi-
lea, irekia, umoretsua, harremanetarako
erraza. Elixabete Perez Gaztelu irakasle
erreteriarren hitzetan, ikus 2007ko *Oar-
so*: «euskaltzalea, erreteriar “militantea”,
berri-emailea, ikertzailea, bultzatzaile-ekin-
tzailea, bakezalea, fededuna, alai eta esker
onekoa genuen gure gizona».

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzogatik, eskerrak eman nahi dizkio:

- Olaskoaga Urtaza familiari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2008ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimaketa: Grafo, S.A.
Avd. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)

ISBN: 978-84-457-2760-7 (Lan osoarena)
978-84-457-2762-1

L.G.: BI - 2924-08



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Salburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística